

Kaudillokeria eta batasuna

Deia.

Euskal Telebistan izan genuen mahainguruan, kaudillokeria dela eta esan nituen hitzak zer adierazi nahi zuten galdetu didate aberkide batzuk.

Hara hemen neuk esan nuenaren argitasun bat.

Sabino Aranak, herri euskalduna ernarazi, batu eta Alderdi indartsu bat sortu nahi izan zuen.

Agirrek, berriz, Sabinen eraginez, Eusko Alderdi Jeltzaleko familia batu nahi izan zuen Bergaran, eta gero, gudako egoerak hala eskatzen zuelako, Herri osoari euskarriak sortzen ahalegindu zen, eta guda igaro eta gero derrotak, hondamenak, jo geninduean, alderdi guzietako herritarrak elkarrekin lanean jartzen ahalegindu zen, eta lortu zuen, beste inork ordurarte lortu ez zuen bezala.

Agirrek erakutsi zituen kontziliaziorako ispiritua, tolerantzia, erizpide librea, erabakia eta ausartzia gabe, ezin izango zuen osatu faszismoaren aurka bildu zituen borondate ezberdinak.

Aranak, herri bat izateko bidean jarri ginduzten, kontzientzia horren jomuga erakutsi zigun.

Agirrek, berriz, euskal nazioa politikoki osatzeko borondatea eta nahimena sorrarazi zigun lehenengo aldiz historian.

Gaurko gure Eusko Alderdi Jeltzalearen Lehendakaria dugun Uzturre jaunak esan digu, gure herria ez dela Kaudillotasuneko herria, ez duela gure herriak Caudillorik maite. Eta egia da. Baina, zer da Caudilloa? Caudilloa, geuk ulertzen dugun Espainiako esperientziaz moduan, *kazikea* da, funtsean; eta hau da geuk nahi ez duguna: gure herriak jasan ezin duena arrazoi eta kriterio librean gainetik itsu-itsuan herria eramaten duena.

Hau da gure herriak inoiz jasan izan nahi ez duena. Arana ez da Kaudillo bat izan; Agirre ere ez; zeren edo norengan aurka ohartarazi nahi izan gaitu Uzturre jaunak? Garaikoetxeagandik? Hala balitz, ez dut uste egin digun ohar hau egokia izan denik: Garaikoetxeak izan dituen aginteak, Alderdiak berak edo Herriak bere osotasunean emanak izan dira, eta ez da aginte honetatik kanpo irten. Hemen argitu behar dena zera da, Alderdiko buruzagitza bezain egokia, eta menpea eskatzen duena, dela Herriko buruzagitza; eta gaur ikusten ari garena, zera dela: Eusko Jaurlaritzako buruak baino nagusikeri gehiago erakutsi duela Alderdikoak.

Bestela hara hor probak nork erabili du bere agintekeria egozketak, espultsioak, egiteko; gure erakundeak hausteko arriskuan jartzeko; edo beste legez kanpokoak izan daitezken gehiegikerietan erortzeko?

Kaudillokerian eror daiteke Euskadiko Lehendakaria, noski; baina baita Alderdiko Lehendakaria ere.

Kaudillokerian ez du kerriaren magnituderik neurtzen, kaudilloaren jarrera baizik.

Jarrera hau da herriak maite ez duena.

Herriak esango du, beraz, azken hitza.

Hemen aztergarri dena, zera da, gure gizonak izan duten Herria edo Alderdia *elkartzeko dohaina eta duintasuna*; eta hau ez da pekatu, birtute haundi bat baizik. Herri gehienak izan dituzte honelako gizonak; geuk ere bai gutxi batzu, eta ez ditzagun, bada, geure pitin hauek zapuztu.